

### Armada

II. mendean, 150.000 legionariok osatzen zuten erromatarren armada, gudari talde laguntzaile askorekin bat era. Gu daroste horrek, eginkizun bereziki militarrez gainera, herri lanen eraikuntzan laguntzen zuten eta estrategikotzat jotako lanak (meategiak, gatzagak...) zaintzeaz arduratzen zen. Legionarioek armadan 20-25 urte ematen zuten eta Erromako herritarrak ziren. Denbora bitarte hori amaiturik, lizentziatu egiten ziren eta sari bat jaso ohi zuten: lursail bat bertan kokatu ahal izateko edo dirua, hamabi urteko ordainsarien heinekoa. Baina noski, beti zeukaten epe berdinerako armadan berriro sartzeko aukera, bigarren aldi honetan gradu batekin, eta ez soldadu arrunt bezala. Dazia, Armenia, Asiria, Mesopotamia edo Arabian kanpainak egin zituen Trajano enperadorearen ondoren (K.o. 106-117), inoizko hedadurarik handiena hartu zuen Erromako Inperioak. Hadrianok, haren ondorengoak, defentsak sendotzeko ekin zion lurralde-mugak bermatzearen. Hala, Britainian harresi bat ("Hadriaren harresi") eraiki zuten eta Rhin-Danubio lerroan zeharreko mugak sendotu zituzten. Gainera, gudaro stearen kuartel iraunkorrak finkatu zituzten; horren ondorioz, legionarioen eta auzoko biztanleen arteko harremanak areagotu egin ziren.

### Legioak

150.000 legionario horiek jarraian adierazten den eran antolatuta zeuden: 5.000 gizonen legio bat osatzen zuten, legio batean 480 gizonen 10 kohorte sartzen ziren, eta kohorte bakoitza 80 legionarioko 6 zenturiak osaturik zegoen, zenturi baten agindupean haietako bakoitza. Zerbitzuko legionarioak –ofizialki– ezin ziren ezkondu, baina nola edo hala moldatzen ziren familia goarnizioaren ondoan izateko. Legionarioen erosteko ahalmenak merkataritza bultzatzen zuten kanpamenduen inguruan, eta kasu askotan benetako hiriak sortu ziren haien inguruan, hala nola Espainiako Leon, *Legio VII* izenekoaren babespean sortua.

### Gudari talde laguntzaileak

Erromatar gudaria diziplinatua zen eta guztiz antolatuta zegoen aginpide-kate konplexu bateko parte zen. Erroma, alabaina, beti ahula izan zen zalditeriari dagokionez. Hori zela eta, laguntza taldeak erreklutatzen zituen haren mendeko hainbat herritako jendearen artean. Hala, zenbait alorretan espezializaturiko gudari taldeak borrokatu ohi ziren legioekin batera; horien artean herri batzuk nabarmendu ziren, hala nola Numida eta Germaniarrak, zalditeriari dagokionez, edota Balearretako haiztariak. Zerbitzua amaiturik, laguntzaileek erromatar hiritartasuna eskuratzen zuten bere buruarentzat eta bere familiarentzat.

### Euskaldunak eta Erromako armada

Zenbait testigantzak dokumentatu egiten dute euskaldunen parte-hartzea erromatarren armadan. K.a. 89. urteko A. Scolioko brontzean, esaterako, Segia baskoien hiriko bederatzi zalduni erromatar hiritartasuna ematen zaiela adierazten da. Gerroxeago, K.a. 82-72 bitartean, Pompeio handiaren eta Sertorioren arteko gerra zibila gertatu zen, *gerra sertoriarra* deiturikoa. Gerra hori Hispaniara aldatuta, Pompeiok Pompaelo sortu zuen bertako herritarra baten gainean

K.a. 75.-74. urteetan. Gerra horretan, Bursao (Borja), Cascantum (Kaskante) eta Gracchuris (Alfaro) hiribaskoak Ponpeioren aliatuak ziren; Calagurris (Kalagorri), ordea, zeltiberiarra zen eta Sertorioren aldekoa. Garai horri dagokio Alfaron eginiko aurkikuntza arkeologikoa: "La Azucarera-ko biltegia". Hor, arma ugari aurkitu dira, haien artean *Gladius hispaniensis* motako ezpata batzuk; puntaz eta bi ahoz horniturik, estokadak eta ebakiak egiteko gai zen ezpata mota hori estandar bihurtu zen erromatar legioen artean. K.o. I. mendean baziren Euskal Herritik ibuen izeneko gudari taldeak: *Cohors II Hispanorum Vasconum* delakoa (basakoei osatua), K.o. 105. urtean Britainian kokaturik zegoena; *Cohors Carietum* eta *Veniaesum* (karistiarrek osatua), edo *Cohors I Fida Vardullorum* (barduliarrek osatua) izenekoak Britainian zeuden K.o. 98. urtetik.